

Izenburua	<i>Hedatu</i>
Formatua	Tailerra
Egilea	UEMA
Kontaktua	https://www.uma.eus/harremana/ / 946279195 (Aulesti, Bizkaia) / 943260372 (Oiartzun, Gipuzkoa) / 943816699 (Azpeitia, Gipuzkoa)
Nori zuzendua	Batxilergoko ikasleei (UEMAko kide diren herritako ikastetxeak. Salbuespenak egin ditzakete, baina bideragarritasuna ikertu egin beharko lukete).
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen pertzepzio soziolinguistikoan eragitea. Euren hizkuntza praktikak eta herriko egoeraren inguruko hausnarketa bultzatzea. • Udallerri euskaldunek euskararen normalizazioan duten funtzio garrantzitsua azpimarratu eta zeregin horretan protagonista direla ikustaraztea. • Ikasleak euskal hiztun moduan kontzientzia eta ardura hartzea.
Oinarriak	<p>Bi esparru kontzeptualetan oinarritzen da UEMAren hezkuntza proiektua:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Einar Haugen hizkuntzalariaren (The Ecology of Languages, 1972) hizkuntza ekologiaren teoria. • Joshua A. Fishman hizkuntzalariaren (Reversing Language Shift, 1991) arnaguneen ideia.
Metodologia	Tailerra modu dinamiko batean egiten da, eta ikasleak taldeka gaiaren inguruan hausnartzera gonbidatzen dira. Horretarako lehen saioan munduko hizkuntzei buruzko galdetegi bat erantzuten dute, tipologia ezberdinetako herrien bilakaera soziolinguistikoa aztertzen dute, hizkuntza biografia bat oinarri hartuta norberaren hizkuntza biografiaz hausnartzen dute. Bigarren saioan norbere hizkuntza-ohituren inguruan hausnartzen jarraituko dute, soziolinguistikako eta hizkuntza ekologiari zein arnaguneei buruzko kontzeptuak ezagutu

	eta barneratzeko jolasak egiten dituzte, euskara erabiltzeko argudioak landuko dituzte eta landutako guztiaren laburpen bat egingo dute.
Denboralizazioa	Ordu eta erdiko 2 saio
Eranskinak	Hezkuntza-proiektua azaltzen duen txostena (Batxilergoko edukia: 12-13 orr.): https://www.uema.eus/wp-content/uploads/2019/09/HEDATU-txosten-laburtua.pdf
Oharrak	Tailerra UEMAKo teknikariek eskaintzen dute.